

*Etxetik*

# AMERIKETARA

Enara Garmendia



erein

***Etxetik***  
**AMERIKETARA**  
Enara Garmendia

Perzebal, 43

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespeneko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

---

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.*

*1. argitalpena: 2021eko apirilean*

Azalaren diseinua:

Iván Landa

Maketazioa:

Erein

© Enara Garmendia Ricon

© EREIN. Donostia 2021

ISBN: 978-84-9109-629-0

L. G.: D 508-2021

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

[erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)



Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: [edizioak@itxaropena.net](mailto:edizioak@itxaropena.net)

[www.itxaropena.net](http://www.itxaropena.net)

***Etxetik***

# **AMERIKETARA**

Enara Garmendia

*Aittonari, azken urte hauetan gure artean  
egon ez zaren arren, egun handietan beti  
nirekin izan zaitudalako.*

*Amonari, lehen momentutik nire  
jarraitzaile fidela izan zarelako.*

## MAIA

—Maitea, esnatzeko garaia da.

Ohearen alboan nuen iratzargailuari begiratu, eta begiak pare bat aldiz itxi eta ireki nituen, zenbakiak enfokatu ziren arte. Goizeko seiak eta hogeit. Hiru bat ordu genituen etxetik irteteko ordua iritsi arte, baina amak arrazoi zuen, jaikitzeko garaia nuen. Neure burua prestatu eta gela hartan geratuko ziren gauza urriak txukundu behar nituen; hilabete batzuetan ez ginen hara itzuliko, eta denak txukun egon behar zuen.

Begiak irekitzeko esfortzu handia eginez baina esperantzaz beteta, ohetik jaiki eta komunera joan nintzen. Gorka esnatu aurretik dutxatu behar nuen; bidaia luzea egin behar genuen, eta dutxatuta joatea komeni zen, deskantsatzeko aukerarik ez genuen-eta izango ia hogeita lau orduz.

Dutxatu ondoren, nire gelara itzuli, eta egun hartarako aukeratutako arropa jantzi nuen: legging beltzak, niki zabal urdin bat eta bidaia luze hura eroso egiteko aurreko astean erosi nuen jertsea. Ilea orraztu

nuen, baina ez nuen lehortu: abuztua zen dagoeneko, eta goizeko ordu haietan zebilen haizea ere epela zen.

Sukaldera joan nintzen eta, han, ama ikusi nuen, guztiz aztoratuta, geratzen ziren gauza urriak txukundu eta bidaiarako ogitartekoak prestatzen.

—Dutxatu eta prestatu naiz, ama.

—Oso ongi, maitea. Gosaldu zerbait. Gorka esnatzera joango naiz.

Egiten ari zena utzi, eta sukaldetik irten zen ama, nik zerealak eta esnea ateratzen nituen bitartean. Dena kontatuta zegoen; gosari hartako hondarrak ere zakarrontzira joango ziren denok gosaldu ostean, eta, aurreko egunean, behar genituen gauzak gordetzen eta sobera zeudenak izebari eman edo zakarrontzira botatzen ibili ziren ama eta aita. Urduritasunarengatik, nik ez nuen gose handirik, baina banekien egun luzea neukala aurretik, eta zerbait jaten ahalegindu nintzen.

Goizeko hamarrak ziren aireportura iritsi ginean. Izeba Irene gurekin etorri zen, eta amaren autoan itzultzekoa zen etxera. Maletak ateratzen lagundu eta gurasoei agur esan ondoren, neba eta biok zain geunden lekura gerturatu zen.

—Asko nabarituko dut zuen falta, bikote. Maia, lagun asko egingo dituzu Estatu Batuetan, baina ez gaitzazu hemengoak ahaztu. Deitu ahal duzun guztietan eta atera milaka argazki. Eta zuk, Gorka —esan zuen gorputza jiratu eta nire neba txikiari begira geratuz—, oso ongi pasatuko duzu Wisconsinen; porta zaitez ongi eta goza ezazu esperientzia hau. —Buruarekin baiezkoa egin, eta irribarre bat zuzendu genion

biok gure izeba gustukoenari—. Zatozte eta emadazue besarkada bat.

Irenek estutu ostean, agur esan eta musu bana eman ondoren, beragandik urrundu ginen. Aitak maletak arrastaka zeramatzen dozena bat pertsona zeuden aldera joateko keinua egin zigun, eta aireportuko langileak zeuden aldera joan ginen.

Gorkaren algarak aireportu guztian entzuten ziren, hain zen handia haren irrika. Motxilak, zapatak eta gerrikoak erantzi genituen; kutxatxo batean sartu, eta X izpien makinatik pasatu ginen. Edo UVA izpiak ziren? Ez naiz oroitzen. Ama eta aita serio zeuden, langileek eskatuta maletatxoak irekitzen zituzten bitartean, eta behin eta berriro eskatu behar izan zioten Gorkari lasai zedin.

Ni aldi berean urduri eta pozik nengoen, eta aurretik genuen esperientzian pentsatzen nuen. Gorka, ordea, izugarri pozik zegoen, urduritasun apurrik gabe; izugarrizko abiaduran hitz egin eta salto egiten zuen.

—Onak izango al dira hegazkineko filmak? Iristen garenean McDonald's erraldoi horietako batean jango al dugu? Utziko didazue etxe berriko gela aukeratzeko lehena izaten?

Aitak eta amak erantzun motzak emanaz erantzuten zioten, eta, aldi berean, eserlekuren batzuen bila zebiltzan, hegazkinean sartzeko hots egiten ziguten bitartean zain egoteko; dena den, pistei begira metalezko aulki batzuetan eseri ginenean, pazientzia handiz erantzun zieten haren galdera guztiei.



Ni isilik nengoen. Oso pozik nengoen bidaia hura zela eta; urteak generamatzan Estatu Batuetara hilabete batzuetarako joateko planari buruz hizketan. Ama ingeniaria da, eta beraren lantokian askotan bidali ohi dituzte langileak AEBra, hilabete batzuk pasatzera, bertan dituzten fabriketan lan egiteko. Gorka eta ni txikiak ginenez, urteak pasatu zituen amak ezezkoa emanez, baina aurreko urtean aitak urtebeteo eszedentzia eskatu zuen lantokian, eta gaztelaniako irakasle gisa lana aurkitu zuen Wisconsingo Tigerton herriko institutuan, amaren lantoki berritik ordubetera baina gutxiagora. Hori horrela, abuztu bukaera hartan, maletak egin, eta familiako lau ki-deok urtebete iraungo zuen esperientzia hartan murgildu ginen.

## GORKA

—Noiz abiatuko da hegazkina? —galdetu nion amari.

—Laster, Gorka.

Pilotua amaren hitzen zain egon izan balitz bezala, momentu hartantxe hasi zen hegazkina mugitzen. Ez zen zuzenean hegan hasi; hasieran, auto bat balitz bezala mugitu zen, eta etsipen puntu bat sentitu nuen. Aspaldian hegazkinean ibili gabe nengoen arren, esperimentzia zirrargarriagoa zela oroitzen nuen. Baina, halako batean, hegazkinaren abiadura azkartzen hasi zen, eta, azkenean, 1 Formulako auto bat balitz bezala azeleratu zuen. Abioiak aurrera jarraitu zuen pixka batean, eta, gutxinaka, aurrealdea altxatzen hasi zen. Kilimak sentitu nituen sabelean, eta, leihotik kanpora begiratu nuenean, lurra jada urruti zen gugandik.

—Zer moduz? —galdetu zion amak aitari.

—Ongi, urduri, pozik... Denetik sentitzen dut. Ez dakit. Bidaia hau onuragarria izango da denontzat, eta haurrek ingeles asko ikasiko dute, baina egun gogorrek ditugu aurretik. Dena antolatu beharko dugu.

—Arrazoi duzu, baina ez ahaztu gehiena prest utzi nuela aurreko hilabetean.

—Zu gabe guztiz galduko ginatke mundu honetan —esan zion aitak amari, irribarretsu.

—Aizu! —egin zidan garrasi Maiak—. Kendu oin zikin horiek nire eserlekutik!

—Zer egingo duzu ba kentzen ez baditut? —galdetu nion, erronkari, zapatarik gabeko oinak beraren aurpegitik oso gertu pasatuz—. Mundu honetan gauza gutxi daude nire arreba zirikatzea baina zirrargarriagorik; segituan haserretzen da.

—Hegazkinetik bota zaitzaten eskatuko diot pilotuari. Ez dakit jausgailurik egongo den eskuragarri. Hala ez bada, kontuz ibili, eta saiatu ur gainean erortzen.

—Ez esan gezurrik! —erantzun nion ia garrasi eginez, baina badaezpada ere beragandik urrundu eta muturren aurrean nuen tabletari begiratu nion—. Aita, ikus al dezaket filmen bat dagoeneko?

—Bai, pitz dezakezu tableta. Baina gogoratu aurikularrak janzte. Jende asko dago hemen.

—Badakit, aita.

Ia-ia «Ez naiz tuntuna» esan nuen, baina isildu nintzen; ez nuen aita haserretu nahi. Tableta piztu eta entzungailuak entxufatu ostean, Pets filma jarri nuen.

## MAIA

Ordubeteren buruan iritsi ginen Madrilera, eta, bi orduz zain egon ostean, Chicagora eramango gintuen hegazkinean sartu ginen. Hegaldi luze hura aspergarria izan zen; bi film ikusi nituen, zerbait irakurri nuen eta lo egiten saiatu nintzen, baina orduak amaiezinak egin zitzaizkidan. Bederatzi orduz toki itxi batean egotea, Internetik gabe eta eserleku gogorretan eserita, ez da zehazki munduko gauzarik tentagarriena.

Baina nahiz eta, aitak esan zuenez, bederatzi ordu pasatu genituen hegazkin hartan, ordu aldaketa zela eta, Madrilgo aireportua 14:00etan utzi eta 15:30ean iritsi ginen Chicagora. Nekatuta nengoen, baina oraindik beste hegaldi bat genuen aurretik, Wisconsinera iristeko.

—Chicagoko aireportua munduko handienetako bat da; tren bat hartu beharko dugu aireportuan bertan, terminal batetik bestera joan ahal izateko.

—Ez esan gezurrik, ama! —esan zion Gorkak, barrez.

—Ez da txantxa, Gorka. Aireportu hau herri batzuk baina handiagoa da. Goazen eta ikusiko duzu nola ez dudan gezurrik esan.

Gure maletatxoak hartu, eta amaren eta aitaren atzetik joan ginen jendez beteriko aireportu hartan zehar. Metro geltoki batera iritsi, eta tren bat etorri zen minutu batzuen buruan. Hamar bat minutu pasatu genituen trenaren barruan, baina bidaia guztian zehar jendea sartu eta atera ibili zen.

Nahiz eta hurrengo hegazkinean sartu arteko tartea amaiezina egin zitzaidan, azken hegaldia abiatu bezain laster hartu nuen lo, eta ez nintzen esnatu lur hartu genuen arte.

Madisongo aireportura iritsi ginenean, egun-argia zen oraindik, baina, nire kalkuluen arabera, hemezortzi bat ordu generamatzan bidaian, eta leher eginda nengoen.

Gure ekipajea jaso genuen, lau maleta erraldoi eta maleta ertain bat, eta irteerara abiatu ginen. Amaren lagun bat zegoen han, gure zain.

—Zer moduz zaudete? —galdetu zigun betaurreko borobildun neska ilehori txiki batek.

—Kaixo, Julia! Mila esker gure bila etortzeagatik! —esan zion amak, berarengana gerturatu eta besarkada bat eman ez—. Nekatuta gaude, baina pozez, hemen gaudelako. Maia, Gorka, hau Julia da; askotan hitz egin dizuet berari buruz, oroitzen?

—Bai. —Gezurra zen, baina lotsa ematen zidan egia onartzeak—. Kaixo, Julia.

—Kaixo, mila esker gure bila etortzeagatik. —Aitak, gerturatu, eta beste besarkada bat eman zion—. Esan kaixo, Gorka.

—Kaixo —erantzun zuen Gorkak, aho-zabalka.

—Ikusten dudanez, haurrak ere nekatuta daude. Goazen, hemen gertu utzi dut autoa. Zuzenean etxera eramatea nahi duzue, ala nahiago duzue zerbait jateko geratu?

—Bai! —esan zuen Gorkak, bat-batean guztiz esna—. Joan al gaitzke super McDonald's batera?

—Ez dakit zer den super McDonald's bat, baina nahi baduzue hemendik gertu dagoen McDonald's batera joan gaitzke.

—Super McDonald's bat beste McDonald's-ak bezalakoa da, baina askoz handiagoa. Hanburgesak honelakoak dira. —Eskuak zabaldu zituen gorputzaren bi aldeetara, zakur bat kabitzeko tamainako tartea eginez.

—Ados ba, Gorka. Goazen McDonald's batera —erantzun zion aitak—. Besterik ez bada, hemengo McDonald's-ak hangoen antzekoak direla ikusiko du —xuxurlatu zidan, begiaz keinu eginez.

Afaltzeko geldialdia egin ostean, Julia, ama, aita, Gorka desengainatu bat eta ni hurrengo hilabeteetan gure etxea izango zenera iritsi ginen. Kanpotik, etxe hura amak aurreko bisitan egin zituen argazkietan erakutsi zigunaren berdin-berdina zen, bi solairutan banatutako etxe zuri eta gorri bat. Baina barrualdea nik espero baino askoz ederragoa zen. Interneten agertzen ziren argazki batzuetan bakarrik nuen ikusia, guztiz hutsik. Baina orain benetako etxe bat zirudien. Egongelan baziren sofa bat eta mahaitxo bat, nahiz eta oraindik telebistarik ez egon. Sukaldean nabaritu nuen aldaketa bakarra amak erositako mahai bat

eta lau aulki ziren, baina kandela batzuk jarri zituen mahai gainean, eta horixe nahikoa zen sukaldeari beste itxura bat emateko. Beheko solairuko komunean, behar genuen guztia zegoen: toallak, xaboiak, orraziak eta abar. Eta beheko solairuko logela apainduta zegoen jada.

—Gela hau amak eta biok erabiliko dugu. Zuen logelak goiko solairuan daude. Zoazte korrika eta aukera ezazue gustukoen duzuen. Baina ez haserretu!

Aitak esaldia amaitu baino lehen, eskaileratan gora gindoazen biok. Gorra ni baino azkarragoa zen, eta, nahiz eta ni lehenengo abiatu, segituan zen nire aurretik. Korrika, geletako batera iritsi zen, eta, goitik behera begiratu ondoren, hurrengo logelara joan, eta gauza bera egin zuen.

—Hau niretzat! —esan zuen, eskuak gora jaso eta salto eginez.

Bigarren logelari begiratu nion, Gorkak beretzat aukeratu zuenari. Bi ohe zeuden, eta banekien horregatik aukeratu zuela. Buelta hartu eta beste gelara joan nintzen, beste aukerarik gabe nirea izango zenera. Bertan zegoen ohe bakarra normala baino altuagoa zen, eta segituan ikusi nuen kanape bat zela; beraz, nik ere izango nuen lagunak lo egitera gonbidatzeko aukera. Baina logelako hoberena leihoa zen. Alde batetik, apal antzeko bat zeukan azpian, irakurtzeko txoko ederra, eta, bestetik, teilatuaren zati lau batean zegoen. Dagoeneko ikus nezakeen neure burua leiho hartatik teilatura irten eta lagunaren batekin hizketan orduak pasatzen, hainbat filmetan ikusia nuen bezala.

Gorkak irabazletzat zuen bere burua, baina ni nintzen gela hoberena zuena.

—Prest al zaude autobusera joateko? —galdetu zuen amak.

Hamar egun ziren Tigerton herrira heldu ginetik, eta iritsi zen eskolara joateko lehen eguna. Lehen aste hura neketsua izan zen. Lehenengo, supermerkatu erraldoi batera joan, eta era guztietako janaria eta gure gelak apaintzeko gauzak erosi genituen. Harrিতa gelditu nintzen ikusi nuen guztiaren tamainarekin. Esnea ez zen nik ezagutzen nituen litroko ontzietan saltzen; galoika saltzen zen (esan zidatenaren arabera, lau litroren parekoa zen galoi bat), plastikozko kir-tendun ontzi erraldoi batzuetan. Eta zerealak ere tamaina ugaritakoak ziren; nahi izanez gero, bost kilo inguruko zakuetan eros zitezkeen. Dena zen handia, bai produktuak, bai erosketetarako orgak eta (nahiz eta hau inori esatera ausartu ez) baita pertsonak ere. Horren ondoren, orduak eman genituen etxea gar-bitu, gure gelak apaindu eta dena prestatzen. Baina merezi izan zuen, gogor lan egin ostean koadro eta poster batzuk eta maindire urdinak bakarrik erabiliz nire gela liluragarri polit geratu baitzen. Eta, ondoren, egunak pasatu genituen inguruak ezagutzen: eskola bisitatu, bolatokira joan, herriko liburutegia ezagutu, eta inguruko herrixka guztietara joan ginen.

—Bai, banoa —erantzun nion amari sukaldetik.

—Ikusten dudanez, garaiz prestatu zara gaur.



—Noski, gogo handia dut eskolara iristeko eta. Herria ez zait asko gustatu, baina jendeak jatorra dirudi, eta uste dut nire gelakideak ere gustuko izango ditudala —esan nion, alde batetik hala uste nuelako, eta bestetik hala izango zela espero nuelako.

—Gaur zurekin joango naiz geltokira, lasai egon zaitezen, baina ez kezkatu, hurrengo egunetan bakarrik joaten utziko dizut.

—Uste dut goizegi etorri garela —esan nion geltokira iritsi bezain laster, bertan ez baitzegoen beste inor.

—Bi minutu bakarrik falta dira. Gogoratu: egunero zazpiak eta hamarreen etorriko da.

—Ba uste dut denak berandu datozela. Ala iritsi eta alde egina izango da?

—Ez, laztana, begiratu zure ingurura. Ia ez dago etxerik hemen; agian, zu izango zara geltoki honetan jasoko duten pertsona bakarra.

Autobusa iritsi zenean, ikusi nuen amak arrazoi zuela. Laster azaldu zen filmetan agertzen zirenak bezalako autobus hori bat. Amari musu eman, eta autobusa gelditu bezain laster sartu nintzen barrura. Atea ireki, eta gizon altu bibotedun bat ikusi nuen txofer.

—Egun on —esan zidan, ingelesez.

—Kaixo —erantzun nion nik ere, bere hizkuntzan.

—Ikusten dudanez, berria zara. Nondik zatoz?

—Euskalduna naiz —erantzun nion, Basque hitza ahal bezain argi ahoskatuz. Ongi moldatzen nintzen ingelesez, txikitatik ikasi bainuen eta ikastolan nire gai gustukoena baitzen, baina beldur nintzen helduek ez ote zidaten ondo ulertuko.

—Ongi etorri ba Estatu Batuetara! Eser zaitez;  
geltoki ugari ditugu oraindik eskolara iritsi aurretik.

## AYLA

—Ayla! Zer egiten duzu oraindik ohean? Berandu iritsiko zara! —esan zidan amak ate paretik.

—Ez nago ongi —erantzun nion, ohean buelta hartu eta berari begiratu.

—Maitea, oso zurbil zaude. Minik ba al duzu?

—Bai, eztarriko eta buruko mina, eta belarriek orro egiten didate.

—Hori da ba zorte txarra! Eskolako lehen egunean gaixo egotea ere...

Arrazoi zuen amak. Ez zitzaidan eskolara joatea gustatzen, baina lehen eguna beti izaten zen interesgarria. Lagunak berriro ikusi, irakasle berriak ezagutu, eskolaz kanpoko jardueretan parte hartu... Ohearen alboan nituen arropen begiratu nien, egun hartarako erosi eta aurreko gauean kontu handiz prestatu nituenei, eder egon nahi bainuen ikasturteko lehen egunean.

—Bai... —esan nuen, hitz bakoitzak eztarria erretzen zidalarik—. Joan nahi dut, baina ez da ideia ona izango.

—Sukarrik ba ote duzun begiratuko dut, baina zauden moduan nik ere ez dut uste inora joatea komeni zaizunik.

—Amona geratuko da gaur zurekin, ados? —esan zuen amak, nire ahotik termometroa hartu eta sukarra nuela ikusi ondoren—. Lanera joan behar dut, baina okerrago sentitzen bazara dei iezadazu. Ordezkatuko nau norbaitek, beharrezkoa bada.

—Mila esker, ama, baina ez dut uste beharrezkoa izango denik.

—Hartu pilula hauek eta saiatu lo egiten, ados? Maite zaitut.

—Nik ere maite zaitut, ama.

Amak ohe ondoan utzitako pilulak hartu, eta ohean etzan nintzen berriz. Begiak itxi, eta lo egiten saiatu nintzen, baina neure buruarekin haserreegi nengoen. Nire behor Daisyrekin aurreko egunean egin nuen ibilaldia luzeegia izan zen. Orduak pasatu nituen haren gainean, eta eguzki izpiek sortu zizkidaten izerdi tantekin hoztu egin nintzen ilundu zue-nean.

Mugikorra hartu, eta mezu bat bidali nien lagunei, elkarrekin hitz egiteko sortua genuen taldean: «Gaixo nago, gaur ezingo naiz eskolara joan». Hura esan eta aurpegi triste bat bidali nien jarraian.

Ordulariari begiratu nion. Goizeko zortziak hoge gutxi ziren, eta dagoeneko denak eskolara bidean edo han gosaltzen ariko ziren; mugikorrak itzaliak izango zituzten ordurako, beraz, eta eskolatik irten arte ez zuten ez nire mezua irakurri ez erantzuterik izango.

## MAIA

Autobus bidaia hura arraroa izan zen. Sartu nintze-nean, dozena erdi ikasle baino ez zegoen, eta ez nintzen inoren alboan esertzera ausartu. Gainera, bidaia osoan zehar autobusa ez zen goraino bete, eta, eserleku huts asko egonik, inor ez zitzaidan alboan eseri. Nitaz hizketan entzun nituen batzuk, nor nintzen elkarri galdetuz; autobusean sartu nintzenean txoferrarekin hizketan entzun nindutenek erantzuten zituzten galdera haiek.

Eskolara iritsi ginenean, autobusetik jaitsi eta ikusi nuen ikasle batzuk jangelara joan zirela; han, doan gosal genezakeen, eta beste batzuk korridoreetan gelditu ziren, lagunekin hizketan. Ordulariari begiratu eta ikusi nuen oraindik hogeita minutu libre nituela. Ez nintzen inorengana gerturatu eta hizketan hastera ausartzen, bat-batean lotsati bihurturik. Banekien non zegoen nire gela, eta bertara joan nintzen, han norbaitekin topo egiteko esperantzarekin, baina iritsi nintzenean gela itxita zegoen. Irakaslea ere ez zen ageri.

Komunera joan nintzen denbora pixka batez zer-bait egitera. Han neska batzuk ikusi nituen makillajeari

azken ukitutxoak ematen, eta haur sentitu nintzen haien aldean; inoiz pentsatu gabe nengoen hamahiru urteko neskak eskolara joateko margotzen zirenik. Komunetako batean sartu, eta, motxila irekita, dena hartu nuela ziurtatu nuen. Ez zitzaidan ezer ahaztu, eskerrak.

Gelara itzuli nintzenean, atea irekita topatu, eta ikusi nuen Rose irakaslea edo, nik deitu behar nion bezala, «Ms. Rose» bere mahaiian eserita zegoela. Aurreko astean ezagutu nuen nire irakaslea izango zena, amarekin eta aitarekin eskola bisitatzera joan ginenean. Gorkarekin ere gauza bera egin genuen, nahiz eta ni baino pare bat urte gazteagoa bakarrik izan, berak beste eskola batera joan behar baitzuen. Mahaietara begiratu, eta lau ikasle ikusi nituen, bakoitza izkina batean eserita. Elkarren lagunak ez zirelako horrela eserita ote zeuden galdetu nion neure buruari, eta neuk zein mahai aukeratu behariko nukeen pentsatzen hasi nintzen. Lehenengo ilaran esertzea komeniko zen, hala Ms. Rosek esaten zuena ongi ulertu ahal izateko? Ikasle popularrak azken ilaran eseriko ziren? Ez nuen inork hitzik egingo ez zion lerdo bat izan nahi. Agian leku neutro bat bilatu eta erdialdean esertzea izango zen egokiena?

—Kaixo, Maia. —Ms. Rosek nire pentsamenduak eten zituen.

—Kaixo, Ms. Rose.

—Zure izena duen mahaiian eser zaitezke. Gaur abizenen arabera eseriko zarete, eta horrela mantenduko zaituztet aste batzuetan. Agian, aurrerago aldutuko ditut zuen eserlekuak.

—Ados, mila esker.

—Begira denok, hau Maia da —esan zuen, gelan zeuden ikasleei zuzenduz—. Euskal Herritik etorri da eta aurtengo ikasturtea gurekin pasatuko du. Eta Maia, hauek... Ez, hobe izango da zeuek aurkeztea zeuen buruak.

—Kaixo, ni Hannah naiz —esan zuen ilea motots altu batean bildua zeraman eta aurpegiari makillajea ageri zuen neska irribarretsu batek.

—Ni Lucas naiz —agurtu ninduen Hannah-ren ezker aldean hiru mahai harago zegoen mutil batek.

—Ni Nathan naiz.

—Will naiz ni.

Batera hitz egin zuten azken bi mutikoez, denoi barre algarara txiki bat eragin zigun korua osatuz. Biek Hannah eta Lucasenak bezalako irribarre adeitsuak ageri zituzten; ongietorri gozoa izan zen. Bat-batean, nire urduritasun guztiak desagertu ziren. Goizean amari esan niona egia zen: jatorrak ziruditen denek, eta banekien lagun asko egingo nituela.

—Urte askotarako —esan nien, ni ere irribarretsu.

—Uste dut horko hura dela zure eserlekua —esan zuen Rose andereñoak, azkena hitz egin zuen mutil-tako baten ondoan hutsik ageri zen mahaiari keinu eginez.

Nathanen alboko mahaira gerturatu, eta disimuluz begiratu nion. Altua zen, eta oso argala; azal zuria, begi urdinak eta makinaz moztutako ile horia zituen. Ez zen oso ederra. Hobe, ez bainuen urte hartan inorekin maitemindu nahi; alferrikako lana izango zen

handik aurrera berriro ikusiko ez nuen mutilen batekin maitemintzea.

Isilik zeuden denak; eta ez nekien isilik egotera behartuta geundelako ala elkarrengandik urrun zeudelako zen; beraz, eskolako lehen egunean arauren bat haustearen beldur, ni ere ez nintzen inorekin hitz egitera ausartu. Isilik eseri, eta ingurura begiratu nuen. Baina gelan ikasle berri gehiago sartu eta elkarrekin hizketan ikusi nituenean, buelta eman eta Nathane-kin hitz egiteko erabakia hartu nuen.

—Iaz ere Ms. Rose izan al zen zure irakaslea?

—Ez, iaz Mr. Lebzelter izan zen nire tutorea. Oso jatorra da, baina Ms. Roseri buruz ere izugarri irakasle ona dela entzun dut. Eskolako irakasle hoberena dela ere entzun diet batzuei. —Une batez isildu eta niri begira geratu zen—. Galdetzea atrebentzia ez bada, nolatan etorri da zure familia Wisconsinera?

—Ez da atrebentzia —esan nion, irribarre batekin—. Ez gara betiko etorri; urtebetez bakarrik utzi dugu Euskal Herria. Nire ama ingeniaria da, eta berak lan egiten duen lantokiak fabrika bat du Deerb-rook-en. Urtebetez hona bidali dute lanera; beraz, denok etorri gara. Nire aitak lanpostua aurkitu du bertako institutuan, eta hori dela-eta aukeratu dugu herri hau.

—Zer irakasten du zure aitak?

—Espainiera.

—Benetan? Nire arreba zaharrenaren irakaslea izango da orduan. Institutuan dabil, eta uste dut aurt-ten espainiera duela ikasgaietako bat.



—Bai, ala? Ba seguru bera duela irakasle, orduan!

—Gustatzen al zaizu herria? —galdetu zidan, une batez biok isilik egon ondoren.

Gustuko al nuen Tigerton? Egia esan, espero nuenetik oso ezberdina zen. Herrian bertan bazeuden leku eder batzuk; etxeak, besteak beste, eta baita lakuak ere. Baina, horrez gain, supermerkatua eta McDonald's-aren moduko jatetxeak besterik ez zegoen inguruan. Hau ez zen beti horrela izan. Iraganean, herri xume polita omen zen Tigerton, baina estatu guztia zeharkatzen zuen autopista eraiki zenean, herrian irteera bat egokitu zen. Bidaia luze haiek egiten zituzten gidarientzat moldatu eta xarma galdu zuen orduan Tigertonek. Baina ez nuen Nathan mindu nahi. Gezurra esatea erabaki eta herria gustuko nuela esatera nindoan unean, txirrinak jo zuen, eta Rose irakaslea bere eserlekitik altxatu zen.

—Ikusten dudanez, ia denok hemen zaudete dagoeneko. Zuen izenak esango ditut, gero neure burua aurkeztuko dizuet eta ondoren elkar ezagutzeko jolas batzuk egingo ditugu. Zer deritzozue?

Ms. Rosek ikasleen zerrenda irakurri zuen, buruz ikasten saiatu nintzen ikasle pila baten izenak esanez. Nire eskolan, eskua itxita eta hatz erakuslea tente genuela altxatzen genuen, baina laster ikusi nuen hemen denek eskua irekita altxatzen zutela besoa (nire gelako paretan zintzilikatua nuen Hermione Grangerrek bezala), eta haiek egiten zutena imitatu nuen, bi aldiz pentsatu gabe.

—Ederki, ikusten dut ia denok gaudela. Orain, zutitzeko eskatuko dizuet, eta mahaien inguruan borobil bat osatzeko. Goazen! Ongi. Orain, esaldi ba-tzuk esango ditut eta identifikatuak sentitzen bazarete eskua altxatzeko eskatuko dizuet. Ulertu duzue?

—Bai! —erantzun genuen guztiok.

—Ados. Lehenengo galdera erraza izango da. Altxa eskua anai-arrebarik baduzue.

Eskua altxatu nuen, gelakide gehienekin batera.

—Altxa eskua bi anai-arreba edo gehiago badi-tuzue.

Ia ikasle kopuru berak altxatu zuen eskua.

—Altxa eskua hiru anai-arreba edo gehiago badi-tuzue.

Oraingoan, besoa luzatu zutenen kopurua pixka bat jaitsi zen, baina asko ziren eskua gora zutenak.

—Lau edo gehiago.

Ez nuen uste inork eskua altxatuko zuenik, baina bost ikaslek bete zuten irakaslearen agindua.

—Bost edo gehiago.

Ile marroidun mutiko batek eta bi neskek altxatu zituzten eskuak.

—Sei edo gehiago.

Aurreko bi nesketako batek berriro altxatu zuen besoa zerurantz.

—Oso ongi, Dawn! Ikusten dudanez, familia handia duzu. —Begia kliskatu zion Ms. Rosek.

—Bai —esan zuen neska ilehoriak—. Hiru neba, ahizpa bat eta hiru ahizpaorde ditut.

—Zeinen interesgarria. Ikusi, hasi gara dagoeneko elkar ezagutzen. Ekin diezaiogun hurrengo galderari. Altxa eskua zuen janari gogokoena pizza bada.

Hiru ikaslek altxatu zuten besoa.

—Altxa eskua zuen janari gogokoena gaztadun makarroiak badira.

Ia gelaren erdiak altxatu zuen eskua, eta arratsalde hartan aitari errezeta hura prestatzeko eskatzea erabaki nuen.

—Altxa eskua zuen janari gogokoena brokolia bada.

Inork ez zuen besorik altxatu, eta bai irakasleak eta bai ikasle askok barre egin zuten.

—Altxa eskua zuen janari gogokoena barbako batean presta badaiteke.

Ingurura begiratu, eta sei ikasle ikusi nituen baiezkoa ematen. Inoiz probatu gabe nengoen barbakoan prestatzen zen benetako janari estatubatuarra, eta horretarako aukera izatea espero nuen.

—Ea, ikus dezagun, nork ez du eskurik altxatu oraindik?

Besoa luzatu nuen, eta beste bik ere hala egin zutela konturatu nintzen.

—Ea, Josh, esaguzu: zein da zure janari gogokoena?

—Sushia.

—Aukera ona da, bai! —esan zion irakasleak—. Eta zein da zurea, Maia?

—Dilista zopa. —Ikasia nuen ingelesez lekaleari dilista esaten ziotela baina prestatu ostean osatzen zen platerari dilista zopa: lentil soup.

Inguruan nituen ikasleek nazka aurpegia ageri zutela ikusita, dilistak gustuko nituela entzundakoa nire lagun euskaldunek egin ohi zuten bezala, Rose irakaslea nigana zuzendu zen.

—Ene bada, interesgarria da hori. Dilista zopa plater tradizionala al da zure herrialdean?

—Beno, ezaguna da, bai, eta tradizionala dela ere esan daiteke, baina jende gehienak ez ditu dilistak atsegin.

—Egunen batean zure herriko jakiez hitz egin beharko diguzu —esan zidan, orain ere irribarretsu.

—Eta zu bakarrik falta zara, Lynn. Zein da zure jaki gogokoena?

—Gaztadun espinakak.

Dilistei buruz hitz egin nuenean inguruko ikasleek erakutsi zituzten nazka aurpegiak hutsaren hurrengo ziren oraingoan jarri zituztenekin alderaturik.

—Goxoa eta osasuntsua, ederki! Ea, jarrai dezagun. Altxa eskua etxean animalia bat baduzue.

Jolas harekin jarraitu genuen hurrengo txirrinak ordubete pasatu zela gogorarazi zigun arte, eta hala amaitu genuen lehenengo irakasgaia. Hurrengo bi orduak ere hegan joan ziren, geure buruak aurkezten eta urtean zehar egingo genuena entzunez eman baike-nuen lehen eguna. Bazkalordua iritsi zenean, berriro ere urduritu egin nintzen, ez bainekien norekin eser nintekeen, baina janaria hartzeko ilaran Chelsea eta Cassie ikusi nituen, eta eurekin bazkaltzera gonbidatu ninduten segituan.

Gustura egon nintzen nirekin hain jatorra zen jendartean eserita, eta, nahiz eta, tarteka, niri zuzendu gabe elkarrekin eta abiada azkarregian hitz egiten zutenean ez nituen elkarrizketak guztiz ulertzen, pozik sentitu nintzen lehen egun hartan.